



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko azaroaren 11

122. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatu, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatu beharreko moduluak ezarri eta Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra sortzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).
- Foru Lege proiektua, 2015erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Osoko zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzekoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da agiri ofizial bat eman dezan, zeinean adieraziko baita 100 kW baino gutxiagoko eguzki-energia fotovoltaikoaren ekoizleek ez dutela zergarik ordaindu behar, harik eta Estatuarekin hitzartu arte. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da akordio ekonomiko bat egin dezan nekazaritzako elikagaien kooperatibekin, beren hozkailuetan gorde ditzaten Elikagaien Bankurako eta ikaste-txeetarako fruta- eta barazki-soberakinak. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Batzordeak onetsia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da herrilurretako perretxikoen eta onddoen aprobetxamendurako ordenantzetan jarduketa-irizpideak ezar ditzan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin batera. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Batzordeak bazter utzia (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Elikadura eta Nutrizio Klinikoko Atala Endokrinologia Zerbitzuan integratzeari buruzkoa. Mari-sa De Simón Caballero andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Murietako eskola ixteari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (8. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatu, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriari aplikatu beharreko moduluak ezarri eta Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra sortzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. 2014ko azaroaren 17ko eguerdiko hamabiak arte luzatzea foru lege proiektu honi zuzenketak aurkezteko epea: "Foru Lege proiektua, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatu, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriari aplikatu

beharreko moduluak ezarri eta Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra sortzen duena". Aipatu foru lege proiektua 2014ko urriaren 17ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, 2015erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

OSOKO ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Aldatzea Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2014ko azaroaren 3an harturiko erabakia, 2015erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari dagokiona, eta foru lege proiektu horri osoko zuzenketak aurkezteko epea

2014ko azaroaren 17ko eguerdiko hamabiak arte luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2014ko azaroaren 4ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzeko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2014ko azaroaren 20ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege

proposamena 2014ko irailaren 4ko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da agiri ofizial bat eman dezan, zeinean adieraziko baita 100 kW baino gutxiagoko eguzki-energia fotovoltaikoaren ekoizleek ez dutela zergarik ordaindu behar, harik eta Estatuarekin hitzartu arte.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita agiri ofizial bat eman dezan, zeinean adieraziko baita 100 kW baino gutxiagoko eguzki-energia fotovoltaikoaren ekoizleek ez dutela zergarik ordaindu behar, harik eta Estatuarekin hitzartu arte.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Allik honako mozio urgente hau aurkeztu du, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, kasuko batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du agiri ofizial bat eman dezan, zeinean interesdun guztiei adieraziko baitzaie 100 kW baino gutxiagoko eguzki-energia fotovoltaikoaren ekoizleek ez dituztela ordaindu behar 2013 eta 2014rako energia elektrikoa ekoiztearen balioaren gaineko zerga dela-eta Zerga

Agentziak erreklamatzeko dizkien zergak, harik eta Estatuarekin hitzartu arte.

Orain dela gutxi, eguzki-energia fotovoltaikoaren ekoizle txikiek Zerga Agentziaren informazio-gutun bat jaso dute, zeinean adierazten baitzaie energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga autolikidatu behar dutela, kasuko kuotak azaro honetan zehar ordainduta (2014-11-20).

Zerga sorrarazten dutenak urteak 2013a eta 2014a dira. Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga arautzen duen 24/2012 Foru Legearen arabera –2012ko abenduaren 31ko NAO–, berriz, ekoizle horiek salbuetsita leudeke.

Ekonomia Departamentuarekin eta Zerga Agentziarekin berarekin egindako bileretan, interesdunek informazio kontrajarriak jaso dituzte; hartara, zeharo nahasirik daude, ez baitakite zehatz-mehatz zer egin behar duten: Nafarroako Gobernuak esandakoa, ala Zerga Agentziak esandakoa.

Hori guztia gutxi balitz bezala, Espainiako Gobernuaren Nafarroako ordezkariak hauxe zioen hitzez hitz, prentsa-ohar batean: "Gobernuaren Ordezkaritzak Nafarroako Gobernuaren mezua indartu nahi du; alegia, zergari buruzko alderdiak hitzartzen ez diren bitartean, zergadunek ez dute zerga ordaindu behar izanen".

Horregatik guztiagatik, Socialistas de Navarra taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dio Ekonomia eta Enplegu Batzordeari:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, ziurtasun juridikoa bermatzearren, agiri ofizial bat eman dezan, zeinean interesdun guztiei adieraziko baitzaie 100 kW

baino gutxiagoko eguzki-energia fotovoltaikoaren ekoizleek ez dituztela ordaindu behar 2013 eta 2014rako energia elektrikoa ekoiztearen balioaren gaineko zerga dela-eta Zerga Agentziak

errekamatzen dizkien kopuruak, harik eta Estatuarekin hitzartu arte.

Iruñean, azaroaren 7an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da akordio ekonomiko bat egin dezan nekazaritzako elikagaien kooperatibekin, beren hozkailuetan gorde ditzaten Elikagaien Bankurako eta ikastetxeetarako fruta- eta barazki-soberakinak.

LANDA GARAPENENKO, INGURUMENENKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko azaroaren 4an egindako Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordean, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da akordio ekonomiko bat egin dezan nekazaritzako elikagaien kooperatibekin, beren hozkailuetan gorde ditzaten Elikagaien Bankurako eta ikastetxeetarako fruta- eta barazki-soberakinak".

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du akordio ekonomiko bat egin dezan Nafarroako nekazaritzako elikagaien kooperatibekin, beren hozkailuetan gorde ditzaten Elikagaien Bankurako eta ikastetxeetarako fruta- eta barazki-soberakinak, eta aldian-aldian bana ditzaten, behar dituzten pertsona guztiengana eta ikastetxeetara hel daitezen".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Iruñean, 2014ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da herrilurretako perretxikoen eta onddoen aprobetxamendurako ordenantzetan jarduketa-irizpideak ezar ditzan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin batera.

LANDA GARAPENENKO, INGURUMENENKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Eva María Gorri Gil andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da herrilurretako perretxikoen eta onddoen aprobetxamendurako ordenantzetan jarduketa-irizpideak ezar ditzan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin batera."

azaroaren 4an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2014ko urriaren 30eko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Elikadura eta Nutrizio Klinikoko Atala Endokrinologia Zerbitzuan integratzeari buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Elikadura eta Nutrizio Klinikoko Atala Endokrinologia Zerbitzuan integratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa De Simón Caballerok, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osasun Batzordean ahoz erantzuteko:

Jakin dugunez, Osasun Departamentuak iragarri du Elikadura eta Nutrizio Klinikoko Atala Endokrinologia Zerbitzuan integratuko dela (gaur egun, Nafarroako Ospitaleguneko zuzendaritza medikoaren mende dago). Horrela ageri da jada bere webgunean.

Zer baldintzatan aldatuko da Elikadura eta Nutrizio Klinikoko Atalaren kokagunea Nafarroako Ospitalegunearen egituran? Zer arrazoi dago aldaketa hori egiteko? Zertan eraginen die langilei eta gaixoei?

Iruñean, 2014ko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, Murietako eskola ixteari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Murietako eskola ixteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera urgente hau egin dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilari Iribas jaunari, Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun diezaion:

- Departamentua konprometitu egin zen landa eremuko eskolak bultzatzera eta Murietako eskola gutxienez ere ikasturte honetan zabalik mantentzera. Kontseilariak nola azaltzen du eskola ixtea egun batetik bestera, inolako gardentasunik gabe eta ikastetxearekin nahiz ukitutako familiekin hitz egin gabe?

Iruñean, 2014ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso